

Ezin lezake inork sendatu
 Nik gaur artu detan miña,
 Zergatik beti Euskerarentzat
 Jayotzatik detan griña;
 Ama euskerak sortu bezela
 Gaur denak izan bagiña,
 Berak senti dun oñazi ori
 Sendaturik alegiña....
 ¡Bañan etzayo seme artian
 Gertatu guziya fiña!...

Orain ari zan zerbait pistutzen
 Eta sartu nai obian?¹...
 Damutasuna or izango du
 Esana uste gabian;
 Munduan ezta izkuntzarikan,
 Ez goyetan, ta ez bian
 Iñoiz izandu, jarri danikan
 Gure Euskeren aurrian,
 Beste amaikak edan oi dute
 Euskeraren bularrian....

Aztu zayote Arbol santua
 Zutik dagola Gernikan,
 Eta Fueroak sortu zirala
 Aren sustrayetatikan...
 Nonbait lurrera bota nai dute,
 An daukaguna zutikan,
 Bañan Jaunari eskatzen diot
 Biyotz barren, barrendikan,
 Berak jarriya nola izan zan
 Iraun dezala oraindikan.

Pake santuan bizi izan da
 Gure Euskera umilla!
 Ta deitu gabe azaldu dira
 Orañ okasiyo billa;
 Elkarturikan egin dezagun
 Euskaldun guziyak pilla,
 Egundaño ere Ama Euskera
 Gelditu ez dedin illa!...
 Mundua den arte orain bezela
 ¡¡Euskera bizi dedilla!!

RAMÓN GUEL BENZU.

¡BIZI BEDI!

(ON MIGEL UNAMUNO JAUNARI)

Bizi bedi Euskal-Erriya,
 Berarekin bere izkuntza,
 Izan dedin beti betiko
 Euskal-Erriya *Euskaldun utsa*.

¿Uste aldezu zuk, Unamuno,
 (Jakintasunez aundiya)

Erri bateko izkuntza orla
 Obiratu ta austen dala?

¿Zer barren dezu? kupitze etzera
 Euskal amaren negarraz
 Eta achurrez zaturikan
 Lurperatzea prest zuaz?....

JULIÁN URRUZOLA.

(1) Sepultura.